



abialdian

askatasunaren ibialdia

Kaixo lagun,

"Euskal Herria, jaiki hadi eta eman hadi bidean..." leloarekin hasten zen orain dela 20 urte Euskal herria zeharkatu zuen Askatasunaren Ibialdiaren agiria. Garai historiko hartan ezberdintasunak albo batera utzi eta Euskal Herriaren bizi grina lau haizetara zabaldu genuen, aspaldian izan den mobilizaziorik jendetsu eta zabalenean. Zihur oraindik gogoratzen duzula edo inoiz aipamenik entzun duzula. Etapa baten amaiera zen. Itxaropena nagusitu zen, aldaketa gogoak eta gure etorkizuna geuk erabakitzeko desioak gutaz jabetu ziren.

Hogei urte igaro dira, gauzak asko aldatu dira eta urrats garrantzitsuak ere eman ditugu, baina lehen bezala orain ere erronka bat dugu. 2.000. urtearen atarian gaude eta Euskal Herriak oraindik ez du eskuratu bere etorkizunaren jabe izateko eskubidea. Euskaldunok zatikatzen gaituzten muga artifizialek hor diraute, egoera sozioekonomikoan atzera egin dugu, euskera oraindik arriskuan dago hainbat lekutan, ... Gure historiaren protagonistak izan nahi dugu.

Horregatik, berriro ere, Euskal Herria bidera atera behar da eta orain dela 20 urte bezala, aurten berriz dugu aukera abertzale guztiok Askatasunaren Ibialdian parte hartzeko. Izan ere, Ekainaren 29an Iruñeatik abiatu zen Abialdia, Gernikan amaitzeko Uztailaren 26an. Zeharkatu beharko duten bidean Altza dago. Hil honen 19an pasako da Abialdia gure Herritik, Orereta eta Donostia lotuko duen etaparen barruan.

Altzako abertzaleok, Abialdian eguneroko etapetan partaide ez garen guztiok, zita oso garrantzitsu bat daukagu aipatutako egun horretan. Zer nolako ekarpena egin diezaiokegu Altzatarrok Abialdiari? Dagoeneko, badakigu Altzan geldituko direla bazkaltzeko, eta horrek, bazkaria prestatzeko lanaz aparte, aukera emango digu beste edukinak lantzeko eta gure Herrian Abialdiaren presentzia eta zentzua zabaltzeko. Honetaz hitzegiteko eta egin beharreko lanak zehazteko bilera bat izango da datorren Larunbatan, hilak 12, arratsaldeko 16'30etan, Larratxoko TXALAKA Elkartean.

Bertan agertzeko eta parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizugu. Denontzat dago tokia. Zapatillak ondo lotu eta atera gaitezen bidera, Euskal Herriaren etorkizuna gure esku bait dago.

Ikusiko garelakoan, jaso ezazu agur bero bat.

Altzako **ABIALDIAN** Taldea